

**IRAKASKUNTZA – IKASKUNTZA PROZESUA  
HOBETZEKO PROPOSAMENA**

**PROIEKTUA**

**EUSKARAZKO IRAKURKETA – IDAZKETA  
PROZESUAREN ZAILTASUNEN TRATAERA**

**AZALPEN MEMORIA**

Ikertzailea. Pili Juaristi Sanchez

2002ko ekaina

## **AURKIBIDEA**

- 📖 Sarrera.
- 📖 Marko teorikoa:
  - Irakurtze esanguratsua.
  - Heldutasunaren arazoa irakurketa-idazketaren irakakuntza-ikaskuntzan.
  - Hitzen segmentazio akustikoa (fonetikoa) irakurketa-idazketa ikasteko prestabide.
  - Irakurketa – idazketaren motibazioa.
  - Testu idatziaren ulermena.
  - Hainbat ondorio.
- 📖 Erizpide psikopedagogikoak.
- 📖 Irakurketa-aurrea.
- 📖 Irakurketa – idazketaren ikaste prozesua:
  - Sarrera.
  - Idazketaren eboluzioa.
  - Irakurketaren eboluzioa.
  - Irakaslearen eskuhartzea.
  - Testuak ekoizteko prozesua.
- 📖 Sekuentzia didaktikoak – pauso praktikoak:
  - Proposatutako generoak.
  - Lehen ziklorako xehetasunak
- 📖 Hezkuntza bereziko ikasleekin irakurketa – idazketa lantzen
- 📖 Haur eta Lehen Hezkuntzan landu daitezkeen testuak.
- 📖 Ikerketa:
  - Sarrerakoa.
  - Deskripzioa.
  - Probak.
  - Bitartekoak.
  - Nortzuekin gauzatu da.
  - Non betearazi eta zein epetan.
  - Nola bete den.
  - Partehartzaileak.
  - Lortu nahi izan diren helburuak.
  - Emaitzak.
- 📖 Hausnarketa.
- 📖 Bibliografia.
  
- 📖 Eranskinak / Sortutako lanak:
  - *100 LAN FITXAK I*
  - *100 LAN FITXAK II*
  - *102 LAN FITXAK III*  
(Letren nahasketa espazial hurbiltasunagatik, espazial hurbiltasunagatik nahasketa: silaba zuzenak eta alderantzizkoak, fonemen nahasketak, silaba mistoak- trukatuak,...)
  - *IRAKURKETA – ULERMENA SAIOAK*
  - *IRAKURKETA SAIOETARAKO PROPOSAMENAK*

## **📖 SARRERA**

Gaur egun irakurketa –idazketa prozesua alderdi askotatik aztertzen da: psikologia kognitiboa, neurologia, hizkuntzalaritza,... eredu anitz daude irakurketa – idazketa aztertzeko.

Idazten eta irakurtzen kostatzen zaien haurrak bi motatakoak izan ohi dira orokorrean. Batzuek, besteek egiten duten gauza bera egiten dute, baina mantsoago, denbora gehiago behar dute. Haatik, ikasten dutenean, besteen mailan gelditzen dira. Beste batzuek, ordea, zailtasunak dituzte prozesu berri hori burutzeko. Ez dute garuneko lesiorik, baina irakurtzen eta idazten ikasteko erantzunkizun handiagoa duten zonaldeek desberdin funtzionatzen diete.

Ondorioz, hitzak soinu bihurtzeko prozesua mantsoago burutzen dute, es dute besteek adinako arintasunik lortzen. Beraz, arazoa prozesamenduaren abiaduran dago, ezin dugu esan garuneko lesio bat dagoenik, garuneko zonalde batzuek desberdin funtzionatzen dutela dutela baizik.

Hau da, zenbait gaitasun besteek baino baxuagoak dituzte eta normala den bezala, gehiago kostatzen zaie.

Adituek diotenez, lehenengo diagnostikoa, haurrak 7/8 urte dituenean egiten da, ez lehenago. Adin horretarako idazketa –irakurketarekin kontaktua izan dute, eta ordurako badakigu zailtasunik baduten ala ez.

Denbora horretan laguntza espezializatua jaso arren zailtasunekin jarraitzen duela eta gehiago ezin duela aurreratu ikusten denean, orduan diagnoztikatu dezakegu dislexia edo dena delako arazoa.

## **📖 MARKO TEORIKOA**

### **\* Irakurtze esanguratsua:**

Irakurtzea – idaztea zer den zehaztetik, definitzetik hasi beharko litzateke eta gai hau pedagogiaren ikuspuntuetatik aztertu duen hainbat autoreek diotena kontuan hartuko dugu:

- **Gumbel, (1989):** irakasleak garbi eduki beharko luke irakurtze-idazteak haurrari zer esaten dion eginkizun horietan hasten denean. Irakurtzea: aer da hori? Ezin utziko du galdera hau erantzunik eman gabe irakurlegai berriekin lanean hasten denean.

- **A. Inizan, (1976):** Irakurtzen noiz erakutsi? Izeneko bere liburu ezagun eta ia klasikoan honako hau kontatzen digu: irakurketa – froga bat prestatzen hasi zenean – gerora eskoletan hain erabilia izan den froga bere – haurrei irakurtzen erakusten jardun ohi zuten irakasleengana jo zuela “ zer da irakurtzen jakitea? “ galdetuz. Galdetutako irakasleek eman zizkioten erantzunak laburbildu nahi izan zituenean ezinezkoa gertatu omen zitzaion, elkarrengandik hain bereziak omen ziren eta erantzun guztiak.

- **Molina Garcia, (1981):** Aurrez ahoskatutako zein batzuen erregistro modu bat baino ez da idatziz ezarritako informazioa. Berriro hots bihurtu behar den zeinu bat baino ez da idatzitakoa, horixe frogatzen digu, behintzat, idazketaren jatorriak: idazketa izan baitzen hasiera haietan grabazio-bide bakarra: zibilizazioaren historia guztien giza adimenak burutu zuen hotsaren lehenengo jasobidea izan zen.

- **Mialaret, (1972):** deszifratzen dena ulertzea da irakurtzea, lerrokadetan banatzen diren marrazki txiki batzuk pentsakizunetan, ideietan, emozioetan eta sentipenetan itzultzea, alegia.
- **Bloomfield:** Komentzionalki fonemen ordeztatutako zeinuak ikusten direnean ohituraz dagokion hizkuntzako hotsak sortzeko gai izan behar da idazketa alfabetikoa irakurri nahi bada. Alfabetoko letrak zein batzuk dira eta hauek gure hizkuntzako hotsak sortzera garamatzate.
- **Kainz, (1956):** Idatzirik jarritako hizkuntz zeinuetatik esanahia zentzuz jasotzea da irakurtzea, eta ondorioz, zein idatziei buruz lortutako ezagutzetan oinarrituz grafikoki adierazitako ideia-multzotik esanahia jasotzeko jarduera.
- **Gagneren, (1969):** Hizkuntz hotsak sortzea, idatziriko hizkiei dagozkien hotsak, alegia.
- **Steiger – Ralph, (1976):** Idatzitako eta inprimitutako zeinuen berrezagupena suposatzen du irakurtzeak; berrezagupen horren bidez lehendikako esperientziatik datorren esanahi-osaketarako eragina jasotzen da, eta era berean irakurleak aurrez bere dituen kontzeptuek baliaturik esanahi berriak moldatzen ditu. Horrek gauzatutako esanahiak, irakurlearen asmoekin adostasunean, prozesu mentaletan antolatzen dira.
- **Wertheimer:** Irakurtzerakoan, pentsatzen ere ari dela irakurlea eta deszifraketa ezin da pentsatze-jardueratik –ohiko irakurleetan behintzat- erabat bereizi praktikan. Eta deszifraketak irakurlearen pentsa-jarduera baldintza dezakeen bezalaxe, baldintza dezakeela eta baldintzatzen duela irakurtze-bitarteko irakurlearen pentsa-jarduerak testu idatziaren deszifraketa.
- **Bethlehem, (1984):** Hitz-multzoen, hitz bakarren, silaba-multzoen, silaba bakarren eta bestelako ortografi zeinuen pertzepzio optikoaren prozesuak, hau da, hor adierazi diren zeinu grafiko horiek guztiak, taldeka eta banaka, antzeman behar direla eta berrezagutu.
- **Goodman, (1976):** Deszifratze-une berean irakurleak bere hipotesiak egiten ditu testu idatzian egon daitekeen mezuari buruz, eta askotan pertzepzio optikoa bera hipotesi horien eraginaren ondorioz okertu edo desbideratu egin ere egiten da.
- **C. Coll (1988):** Erakusten zaionari –irakurtzen duenari- esan daiteke hemen –esanahia eta zentzua emateko gauza denean ikaslea, ikasle esanguratsu baten aurrean gaude, eta bide batez ikaslearen garapen pertsonalean ondorio baikorra izango dituen ikaste-moduaren aurrean.
- **Oihartzabal, (1989):** Ausubeli jarraituz, honela laburbiltzen du: ikasteko gai edo eduki berriak ikasleak aurrez moldaturik dituen ezagutza-egituretan eta trinko eta sakon batean, eta ez arbitrarioki, txertatzen badira, ikaste esanguratsu baten aurrean gaude.

Idatzirik (= zeinu grafikoen bidez) dagoen hizkuntzatik dagoen edo egon dauden mezuak jasotzea eta asimilatzea da irakurtzea. Idatzitakoa hizkuntza bat denez, hizkuntza mintatua idatziz jartzeko arauz jabeturik egon behar du irakurleak mezura iristeko. Zenbaitetan deszifraketa bitartekotasuna nabarmena bada ere, beste askotan deszifraketa ez da erabatekoa; alderantziz, oso deszifraketa mugatuan oinarritu ohi da irakurle ona eta azkarra bere irakurketa-jarduera bideratzerakoan.

**\* Heldutasunaren arazoa irakurketa-idazketaren irakaskuntza-ikaskuntzan:**

Irakurketa – idazketaren didaktikan garrantzi handia eman zion kontzeptua izan da heldutasunaren hau. Hor daude horren frogagarri hainbat test, haurra irakurtzen eta idazten hasteko heldua dagoen ala ez frogatu nahian moldaturik (ABC testa, irakurketa bateria,...) oso erabiliak izan dira eta erabiliak dira oraindik ere eskoletako psikologoaren artean.

Bestalde, hortxe daude irakurtzeko eta idazteko heldutasunari eskainitako obra klasikoak (El aprendizaje de la lectura, Narración, disposición y predisposición lectoras,...) gutartean erabilienak eta ezagunenak.

Ondorioz, erabat onarturik egon da eta dago oraindik ere “haurrak sei urte bete dituzan bitartean ez litzatekeela irakurtzen erakusten hasi behar” dioen iritzia.

Autore batzukentzat, sei urte bete baino lehenago irakurtzen hasia “garaia baino lehenago” hasia da. Ideia hau oso zabaldurik dago eta irakurtzen “goizegi” erakusten hastetik letroekin “gaitzik” okerrenetakoa zorigaitzoko “dislexia” genuke.

Azken batean, beraz, irakurtzen ikastea zeri esaten zaion da, hemen, kontua. Horren arabera erabakitzen baita, aldi berean, haurrak nola irakurri behar duen ere: akatsik egin gabe ikasi behar dueka irakurtzen haurrak, eta hori metodo konkretu batzuen bidez bakarrik lor daitekeela erabakitzen da ondoren. Eta orduan horretarako heldutasunak zein neurritakoa izan behar duen deskribatzera eta zehaztera pasatzen gara.

Bervennuty-Morales (1982) irakasleak, lateralitateak, gorputzaren eskemak eta sinzinesiek irakurketa-trebetasunarekin duten lotura eta eragina aztertu nahi izan zuen autore honek. Bildutako emaitzak hauek izan ziren:

<b>Lateralitatea eta irakurketa - trebetasuna</b>		
N = 292	Lateralitatea ongi    gaizki	
Zailtasunik ez irakurketan	88	57
Nola-halako zailtasunak	44	53
Zailtasun handiak	29	21
Korrelazio – koefizientea:	.0608 = ez esanguratsua	

Ez dago, beraz, lateralitatea eta irakurketan lortuko den trebetasunaren artean, estadistikoki begiratuta, lotura esanguratsurik.

<b>Gorputzaren eskema eta irakurketa-trebetasuna</b>		
N = 292		
	Goputz -eskema ongi      gaizki	
Zailtasunik ez irakurketan	103	42
Nola-halako zailtasunak	57	40
Zailtasun handiak	23	27
Korrelazio – koefizientea:	.193 = ez esanguratsua	

Bi aldagai hauen artean ez dago lotura esanguratsurik estadistikoki begiraturaz gero.

Heldutasunaren kontzeptu hau, nahiko errelatibizatu behar da, horrela, bost urteko haur batek asko bizi izan du, eta egaritasun baten barruan, bere ingurunearen arabera, egoera hobea edo okerragoan aurkituko da. Arrazoizkoa da, beraz, bere gaurko lorpenak iraganeko bizipenen ondorio izatea, famili giroan bezalaxe haur eskolan bildutako bizipenen ondorio; emaitza erabakiorrak, zalantzarik gabe.

Haurra, ingurune eraginkor batean murgiltzen bada, aurreikusi baino aurreratuagoa etorriko da. Alderantziz, ingurune hori oztopoz beterik badago, aurreikusitakoa baino garapen geldiagoa ekarriko du.

Ondorioz, haur eskolako adinetan haurrak biziko duenak –inguruneak horrela eraginda-baldintzatuko du haurraren garapena bai pertzepzio-arloetan, bai ezagutza orokorrarenean ere.

Horrela bada, irakurketa-idazketa eragingo duen inguruneak –ez da esan nahi irakatsi behar zaionik- haurraren psikologi-garapen orokorrean bere ondorioak izan ditzakeela pentsa genezake.

\* **Hitzen segmentazio akustikoa (fonetikoa) irakurketa-idazketa ikasteko prestabide:**

Bere ingurunean testu idatziak ikusten eta sumatzen dituen haurrak –testu idatziak dira edonoren eta edozeren izen idatziak (Cola-ca, Adidas, Aitor,...) irakurtzeko moldatutako ipuinak, olerkiak, abestiak, oharrak, eskutitzak,...- bere hipotesiak eta bere ezagutzak moldatzen ditu hizkuntza idatziaren ezaugarriez eta arauz.

Idaztea eta marraztea bi eginkizun ezberdin dira, letra ezberdin ugari behar dira, lerroka horizontaldi idazten da nagusiki, zeinu grafiko osatutako multzo batzuen artean tartekak eta beste bazuetan puntuak jartzen dira,...

Haur batek berez, inoren laguntza berezirik gabe, eskolara hasi aurretik moldatzen dituen ezagutzetako batzuk. Ikusten dituen testu ezaugarriak aztertzen berez hasten da, beraz, haurra, bere ingurune ohizko beste edozein gertakari aztertzen hasten den bezalaxe.

Idazteko erabili ohi diren zeinu grafikoak ahozkatutako hitzen zati baten ordean daudela konturatutakoan emango du haurrak urratsik garrantzizkoenetakoa hizkuntza idatziari buruz moldatzen ari den ezagutzan.

Silabak baino oinarrikoagoak diren beste osagai batzuk aurkitu beharko ditu bere hizkuntza mintzatuaren, fonema izenez ezagutzen ditugunak, alegia; bere ingurunean pertsona helduagoak idazten eta irakurtzen duten moduan irakurri eta idatzi behar du.

Hitzaren ezaugarri fonetikoak azterketa formala egin beharra suposatzen du irakurtzeak eta idazteak: hitz bakoitzak dituen fonemak, fonema-konbinazioak (silabak), hitzaren azentu-ezaugarriak,... kontuan hartzea behartzen du irakurri eta idatzi nahiak.

Hizkuntzaren osaketa silabikoaz berez jabetzen da haurra edo jabetu ote daiteke haurra?

Autore desberdinak ez datoz bat galdera horri erantzuterakoan; batzuren ustez haurra berez iritsiko litzateke hitz mintzatuaren osaketa fonologikoaz jabetzera, baldin eta hizkuntza idatziaz harreman ugariak, interesgarriak, aberatsak eta funtzionalak izateko aukerak eskainiko balitzaizkio. Jarrera horretarako honako arrazoiketa honetaz baliatzen dira: hipotesi silabikora berez iritsi den haurrak sekulako ezagutza-gatazka du berehalakoan bere aurrean, izenean sumatzen dituen silaben kopurua eta izen bera idatziz ikusten duenean sumatzen dituen grafien (grafemen, letren) kopurua ez datoz bat. Hipotesi silabikoak, beraz, ez dio gertakaria argitzen eta beste aurkikuntza batera, beste hipotesi batera behartzen du, horrela, haurrak hipotesi fonetikorako bidea irekirik luke.

Aurkako iritziak ere badaude, hauentzat, helduagoen laguntzaz bakarrik iritsi daiteke haurra hitzaren konposaketa fonologikoaz jabetzera. Hauen oinarria, ikasbide globala eta ikasbide fonikoa irakurtzen ikasten ari ziren haurren arteko desberdintasunak hartzen dituzte kontutan: hitzaren deskonposaketa/konposaketa fonologikoa egiteko gaitasunean agertzen diren ezberdintasunak, alegia.

*Bi ondorioetara eramaten gaitu atal honek:*

1. Hitzaren (mintzatuaren) deskonposaketa fonologikoa egiteko gaitasunak oinarri-oinarriko eginkizuna jokatzen du irakurtzen ikasteko prozesuak. Gaitasun honetan egon daitezkeen defizitak zaildu egingo luke irakurtzen ikasteko prozesua eta baita idaztekoa ere.
2. Eztabaida dago, ordea, hitzaren azterketa fonologikoa egiteko gaitasunaren garapena zerk eragiten duen erabakitzeko orduan.

Hainbat gogoeta psikolinguistiko eta pedagogikorako atea eta bidea irekitzen dizkio egoera honek edonori.

**\* Irakurketa – idazketaren motibazioa:**

Ezin dugu idazten eta irakurtzen irakatsi egoera komunikatibo mugatu batzuetatik at eta egoera hauei dagozkien testu motak, hala nola beraien berezitasun, estrategia eta arauak kontutan hartu gabe eta landu gabe.

Irakurketa-idazketa prozesuan, metodologia, estrategiak, denborazkotasuna, baliabideak, ebaluazio-bideak,... era kontziente batetara begira jarri behar dira.

Gaur egun gure gizartean irakurketa prozesua (berarekiko harremana) haurrengan lehen hilabetetik hasten dela esan dezakegu, idatzitako hizkuntzaren presentzia ia jaiotzarekin batera ematen baita, beraz, haurrak lehenengo urtetatik lagun ditzazkegun irakurketa-idazketa prozesua emankorra eta atsegina izan dezaten.

Edozein jarduera pedagogikoan bezalaxe, aldagai eraginkorrena haurrak ikasteko duen gogoia izaten da, horregatik irakaslearen lana, lehenengo pausoak, gogoia sendotzeari begira egitea izango da.

Lan hau, nahiko erraza gertatuko zaigu umeak bizi duen munduan irakurtzearen funtzionalitatea eta ospea oso altuak ba dira. Eskolak eskua sartu baino lehen haurrak irakurtzen ikasteko daukan irrika eta gogoia nabarmenak izaten dira, ondorioz, irakaslearen lana, motibazio berriak sortzera baino, dauzkan gogoak ez akabatzerantz zuzenduko da. Horretarako funtzionalitate eta esanahi gabe testuingururik gabeko ekintzetatik aldenduz haurrak ez aspertzen ahaleginduko da irakaslea.

Irakurtzea, idatzitako kodigo baten aurrean gure aurreko ezagupenak (datuak, estrategiak,...) erabiliz informazio berriarekin ezagupen eta jarrera berridun estadioetara pasatzea da.

Idaztea, berriz, gure ideia, datu, gertaera, sentipenak,... barneratutako estrategiak erabiliz kode grafiko baten bidez eta antolakuntza baten barruan adierazten da.


Haurrak, irakurketa-idazketa, munduarekiko duen mirespena ez galtzea nahi badugu, aurreko bi baieztapen hauek une orotan irakaslearen jardueraren ardatza eta iparra izan behar dute.

Haurren garapen kognitiboa eskolan ikaskideen arteko elkarrekintza (interakzio) bidez ematen da hein handi batean. Taldearen sentipena “talde baten barruan egotearen poztasuna” era sistematiko batean landu behar da. Taldeak berak haurren erritmo desberdinak gozotasunez onartzeko baino horrekin batera besteekiko elkarrekintza; laguntza gehiago behar duten ikaskideek besteengandik beti izan dezaten.

Bestalde, haurrak bere burua taldekide sentitzean, besteek lortutako trebetasunak beretzat ere nahi izango ditu (taldekidetasuna sendotzeko, integrazio mekanismoak) eta ahaleginak egingo ditu lan horretan taldeak (besteek) lortu izanak berari segurtasun eta konfidantza emango diotelarik bere bidean.

Talde sentimenduaren eraikuntzan aniztasuna baloratzea eta tratamenduak eragin handia dute. Jarduera uniformizatzaileak erabiltzen ditugunean, “talde” izatearen indar eraikitzaileak ezereztu, antzutu egiten ditugu eta ondorioz haurren arteko aldeak handitzen ditugu. Jarduera uniformizatzaileak zenbat eta sarriago erabili eskolan, are eta handiagoak dira haurren arteko aldeak eta are eta handiago da irakurketa-idazketa prozesuan porrota izaten duten haurren kopurua.

\* **Testu idatziaren ulermena:**



\* **Hainbat ondorio:**

Adierazitakoak adieraziz, bi-hiru puntutan laburbil daitezke honen guztiaren ondorioak:

- Hitzaren segmentazio fonologikoa egiteko gaitasuna da, anza guztien arabera, irakurtzeko eta idazteko gaitasunaren garapenean eraginik handiena duen aldagaia.
- Hizkuntza idatziaz baliatzeko sumatzen duen beharrak eta interesak eragin dezake, neurri handi batean bederen, haurra bere hizkuntza mintzatua fonologikoki aztertzeraz.
- Hizkuntza idatziak bere eguneroko ingurunean izan dezakeen erabilera funtzional, ugari eta atseginak eragingo du, zalantzarik gabe, haurrak hizkuntza mintzatua fonologikoki aztertzeko sumatu duen interesa.
- Baldintza horietan haurrari sor dakizkiokeen kezkei eta galderari erantzuneko hizkuntza mintzatuaren segmentazio fonologikora berez iristeko aukerak irekiko dizkiote haurrari.
- Hitzen deskonposaketa/berkonposaketa fonologikoa egiteko gaitasuna eragiteraz eta garatzera bideratutako aktibitateek modu eraginkorrean lagun diezaiokete haurrari, baldin eta kontestu funtzional eta atsegingarri batean gauzatzen badira.

## **ERIZPIDE PSIKOPEDAGOGIKOAK**

\* Ahozko eta idatzizko hizkuntza garatzeko, *ondorengo erizpideak* hartu behar dira kontutan:

- Hizkuntza, komunikatzeko tresna.
- Haurren aurrezagupenak abiatzeko puntu.
- Ekintzen garrantzia.
- Hizkuntza, ezagutza globala adierazteko bide.
- Diskurtsoen dibertsitatea.
- Hizkuntza, baloreak transmititzeko zubi.
- Aprendizai esanguratsua.
- Errakuntzak baloratzea.
- Elkarrekin, elkarreraginean arituta ikasten da.
- Etengabeko eta prestakuntzazko ebaluazioa.

## **📖 IRAKURKETA – AURREA**

Haur Hezkuntza, haurrek lengoaiarekin eta adierazpenarekin zerikusia duten hainbat material izaten dute eskura, sinbolo grafiko batzuen bidez ideiak edo kontzeptuak adieraztea helburu izanik. Honakoak erabil daitezke: marrazkiak, irudiak, laminak, ipuin-liburuak, ontzi desberdinen errotuluak daramatzaten kartulinak, letrak, inprenta, idazmen-aurreko materialak, arkatzak, errotuladoreak,... Haurrak kode grafikoak ezagutzen hastea eta interpretatzeko eta gainerakoei kode horien bidez zerbait ulertarazteko gai direla ikustea nahi dugu. Kode horien erabilera jolasaren bidez eragitea da kontua, eta idatzizko adierazpena komunikatzeko garrantzitsua dela ikustaraztea.

### ***\* Ikaslearekin lantzen dena:***

- Kode grafikoen erabilera eta balioa ezagutzea: irudiak, letrak, koloreak, argazkiak, sinboloak, hitzak,...
- Sinboloak eta irudiak egoera edo ekintza jakinei lotuz ezagutzea eta identifikatzea.
- Irakurketaren eta idazketaren inguruko oinarrizko ohiturak hartzea: ezkerretik eskuinerako norabideari jarraituz, grafomotrizitateaz eta idazketa-tresnak: arkatza, pintura, inprenta,... erabiliz sinboloak eta grafikoak ezagutzea.
- Liburuak eta ipuinak erabiltzea, eta horietako irudiak eta marrazkiak ezagutu eta interpretatzea.
- Idazketa sinboloak eta grafikoak eguneroko ihardueretan zein funtzio duten ikastea: tutorearen eta gurasoen artean mezuak irakurtzeko, zer behar duen adierazteko, gogoko dituenak idatziz azaltzeko (abestiak, mezuak, etab.), egin dituenak ondo baloratzeko.

### ***\* Behar dituen laguntzak:***

- Marrazkiak edo grafikoak eskuragai izan, haurrak identifika ditzan.
- Iharduerak sekuentziatu, errazagoa eginez arreta jartzeko gai izan dadin.
- Guztien arteko arreta-formatoak: laminak haurrarekin batera begiratu eta seinalatzea, beste haurren batek seinalatzen dionari adi egotea, izendatuko zaizkion marrazkiei begiratzea,... Liburuak eta laminak elkarreragina sortzeko bidea dira.
- Elikagaien, jolasen, gelakodeen, familiaren, etxearen,... inguruko argazki edo marrazkidun laminak.
- Agenda pertsonalizatua, haurarentzat esanguratsuak diren gauzen marrazkiak edo argazkiak bertan sartzeko.

## **IRAKURKETA – IDAZKETAREN IKASTE PROZESUA**

### **Sarrera:**

Nola ikasten da:

- Ikuspegi eraikitzailea erabiliz.
- Jarraian-jarraian hurbiltzez.
- Interpretazio eskema orokorrenetatik zehatzagoetara.

Nola irakasten da:

- Erabilera ardatza: “Irakurriz ikasten da irakurtzen”.
- Prozesu inductiboak: “Erabiletatik araez jabetzera”.
- Eskuhartze sistematikoa: - Helduen eragina.  
- Ikaskideen eragina

### **Idazketaren eboluzioa:**

#### **1. Idazketa aurrezilabikoak.**

Idazketa multzo honetan ez dago korrespondentziarik soinua eta grafien artean.

##### ***1.1.- Marrazkia eta testua ez dute bereizten:***

Oraindik ez dakite gure idazte sistemak adierazten duena ez dela esanahia, esaten dena baizik; ez dela objeoa, objetoaren izena baizik.

##### ***1.2.- Idazketa bereiztuezinak:***

Etaparen honetan badakite idatzita dagoenak gauzen izenak adierazten dituela. Badakite marraztea baino, beste zerbait dela eta grafismoa erabiltzen dute zerbait errepresentatzeko.

- . Garatu gabeko grafiak (marraz, bukleak,...)
- . Kantitatean kontrol gabekoak.
- . Kopuru eta letren arteko bariazioak (bariazio horiek ez dituzte erabiltzen esanahiak bereizteko oraindik).

##### ***1.3.- Idazketa bereiztuak:***

Esanahi desberdinak adierazteko, grafien kopurua edo konbinazioa aldatzen dute. Kopuru eta letren arteko bariazioak.

## **2. Idazketa silabikoak.**

Soinu eta grafien arteko korrespondentzia hasten da, silaba bakoitzeko grafia bat.

- . Idazketa silabikoak hasieran.
- . Korrespondentziarik gabeko idazketa silabikoak.
- . Idazketa silabikoak korrespondentziarekin.

## **3. Idazketa silabiko – alfabetikoak.**

Etapan honetan korrespondentzia alfabetikoa egiten hasten dira, hau da, grafia bat fonema bakoitzeko. Ekoizpenak mistoak izaten dira, alegia, korrespondentzia silabikoa eta alfabetikoa nahastu egiten dituzte. Normalki, ekoizpen silabikoak egiten dituzte, batzuetan jorrespondentzia alfabetikoa agertzen delarik.

## **4. Idazketa alfabetikoak.**

Hitz gehienetan erabilitako korrespondentzia alfabetikoa da.

### **Irakurketaren eboluzioa:**

#### **1. Testua eta irudia ez dituzte bereizten.**

Hasten dira testua irakurtzen eta irudia irakurtzen bukatzen dute.

#### **2. Esanahia kontestutik dator.**

Hitz berak esanahi asko eduki ditzake, beti ere testuinguruaren arabera.

#### **3. Kopuruan erreparatzen dute.**

Kontestuaren arabera irakurtzen dute, baina kontestuaren arabera egiten duten predikzioa testuaren berezitasun grafikoekin (letren kopurua) kontrastatzen da.

#### **4. Letrekin erreparatzen dute.**

Kontestuaren arabera irakurtzen dute, baina kontestuaren arabera egiten dituzten predikzioak letren arabera zuzentzen dituzte.

## **5. Deszifraketa.**

### **5.1.- Integraziorik gabeko deszifraketa:**

Deszifratzen dute baina ez dute integratzen. Deszifraketa zuzena edo ia zuzena da baina esanahiaz ez dira jabetzen.

### **5.2.- Deszifraketa integrazioarekin:**

Deszifraketa ez da erabat zuzena, baina umea esanahia aurkitzen ahalegintzen da, esanahia integratzen du.

### **5.3.- Irakurketa:**

Deszifraketa zuzena da eta gainera esanahiaren integrazioa dago.

## **Irakaslearen eskuhartzea:**

### **1. Idazketa aurrezilabikoak. Esanahia kontestotik dator. Kontestotik - Testura.**

\* *Testu laburrak idatzi eta idatzitakoaren behaketa bultzatu.*

- Umeen izenak.
- Ipuinetako pertsonaien izenak.
- Gelako gauzen izenak.
- ...

\* *Testuen manipulazioa bultzatu.*

- Segmentuez baliatuz hitzak osatu – hitzak moztu.
- Hitzak sailkatu.

\* *Irakurketa funtzionala bultzatzen duten iharduerak proposatu.*

- Arbelean idatzitako izenak gelara heldu eta ezabatu.
- Izenak topatu eta beste nonbaiten eskegi.

\* *Umeei irakurri: oharrak, ipuinak, gonbiteak,...*

\* *Testuinguruaren informazioen erabilera bultzatu.*

- Marrazkiak.
- Testuinguru funtzionala.
- ...

### **2. Aro silabikoa. Esanahia Testutik dator. Testuaren markak.**

\* *Idatzi bitartean testuen behaketa bultzatu.*

- Idazteko era berbalizatu: erlazio fonologikoak, forma grafikoak.
- Idatzitakoa gogoratu.

\* *Ikasleek diktatutako testuak idatzi.*

- Zer idatzi? Zentratutako diktaketak.
- Nola idatzi? Zentratutako diktaketak.

\* *Idazketa bultzatu. Prozedurak ikasleen egoerari egokitu.*

- Kopia:
  - . Gaietik pasatu.
  - . Nola idazten den behatu eta berehala idatzi.
  - . Eredua aurrean dutela idatzi.
  - . Eredua zailtasunen aurrean bakarrik erabili.
- Eredurik gabe idatzi:
  - . Eredua erabiltzeko aukera.
  - . Gelako hiztegitxoan erabilera.
  - . Erreferentzien erabilera.
- Dikataketa:
  - . Irakasleak ikasleei.
  - . Ikasle batek beste bati/batzuei.

\* *Irakurketa bultzatu.*

- Testu eta kontestuaren informazioez baliatuz.
- Testuaren informazio mota desberdinak erabiliz:
  - . Hitz ezagunak.
  - . Segmentu ezagunak.
  - . Erlazio fonografikoak.

### **3. Aro silabiko/alfabetikoa – alfabetikoa. Testuen dekodifikazioa.**

\* *Ikasleek diktatutako testuak idatzi.*

- Zer idatzi? Zentratutako diktaketak.
- Nola idatzi? Zentratutako diktaketak.

\* *Hitzen arteko konparazioak bultzatu eta letren familiak osatu.*


- Ikusi – makusi jolasak.
- Hiztegitxoak osatu.

\* *Testu laburren idazketa bultzatu.*

- Hitz ezagunak.
- Erreferentziak erabiliz.
- Ahoz ezagutzen dituzten testuak.
- Testua antolatzeke euskarriak.

### **Testuak ekoizteko prozesua:**

## **komunikazio egoera**



Flower and Hayes, 1981.

<b>Pauso praktikoak</b>	<b>Genero multzoak</b>	
<p>Joaquim Dolzek generoen eta sekuentzia didaktikoen inguruko ideia garrantzitsuak azaltzen ditu. Generoek, ahozko eta idatzizko hizkuntzak lantzeko bidea ematen dutela azpimarratzen du, eta bide hori lantzeko sekuentzia didaktikoak erabiltzea proposatzen du. sEkuentzia bakoitzean halburu batzuk finkatuz genero desberdinak lantzen dira. Horretarako, generoak taldekatzea edo multzokatzea proposatzen du Dolzek, taula honetan ikusten den bezala.</p> <p>Oinarrizko lana egiteko bost taldetan banatzen ditu generoak. Taldekatzea egiteko hiru irizpide hartu dira kontuan:</p> <p>-Irakaskuntzari atxikitako helburu sozialekin bat etortzea, eta gure gizarteko komunikazioaren oinarrizko alorretan ahozko zein idatzizko hizkuntza adierazpenei erantzutea.</p> <p>-Zenbait gida-liburu eta ikasketa planetan agertzen diren taldekatzeekiko malgua izatea.</p> <p>-Taldekaturako generoak antzekoak izatea hizkuntza gaitasunei dagokienez.</p> <p>Curriculumaren ikuspuntutik, talde bakoitza irakaskuntzako maila guztietan lantzea proposatzen da, aldi bakoitzean genero desberdin batean sakonduz.</p> <p>Honek abantaila hauek ematen ditu:</p> <p>-Ikasleei idazketara hurbiltzeko bide desberdinak eskaintzen dizkio eta pedagogikoki desberdintzen irakatsi.</p> <p>-Ikuspuntu didaktiko batetik, taldetan sailkatutako generoen aniztasunak bakoitzaren berezitasunak definitzeko aukera ematen du.</p> <p>-Psikologikoki, hizkuntza eragiketa asko genero talde bati lotura daude.</p> <p>-Helburu sozialei dagokienez, hizkuntza mailako gaitasun desberdinak garatzeko multzokatzen eta lanak zehazten laguntzan du.</p> <p>Multzo bakoitza lantzeko maila bakoitzean genero konkretu bat sakondu daitekeela esten du Dolzek 2. taulan eta horren adibidea uzatzen digu aurreko taulako hirugarren taldearen progresioarekin.</p>	<p><i>Komunikazioaren ingurune soziala</i> <b>ELEMENTU TIPOLOGIKOAK</b> <i>Hizkuntz gaitasun nagusiak</i></p>	<p><i>Ahozko eta idatzizko generoen adibideak</i></p>
	<p>Kultura literarioa</p> <p>KONTATU (narrar)</p> <p>Ekintza mimesia sinesgarriari intriga erantsiz</p>	<p>Ipuin zoragarria Alegia Abenturazko kontakizuna Zientzia-fiziozko kontakizuna Misteriozko kontakizuna Kontakizun mitikoa Istorio harrigarria Biografia Eleberria Parodia ipuina Asmakizuna Haur-abestia</p>
	<p>Giza ekintzen dokumentazioa eta memorizazioa</p> <p>KONTATU (relatar)</p> <p>Bizitzako esperientzien adierazpena diskurtsoaren bidez eta denboran kokatuta</p>	<p>Bizitzako kontakizunak Bidaietako kontakizunak Norberaren egunerokoa Testigantza Pasadizoa Autobiografia Gertaerak Erreportaia Munduko kronika Kirol kronika Historikoa Ohar biografikoa</p>
	<p>Arazo sozial polemikoen eztabaidak</p> <p>ARGUDIATU</p> <p>Jarrera gartzearen finkatzea, gezurtatzea eta negoziatzea.</p>	<p>Iritzi artikulua Argudiozko elkarriketak Irakurlearentzako gutuna Erreklamazio gutuna Eskatera gutuna Eztabaida informala Eztabaida moderatua Editoriala Errekurtsoa Legezko errevisa Saiakera</p>
	<p>Jakiteen igorpena eta eraikuntza</p> <p>AZALDU</p> <p>Jakintza modu desberdin aurkezpen testuala</p>	<p>Testu erakuslea Hitzaldia Artikulu entziklopedikoa Aritu bati elkarriketa Azalpen testua Ohar-hartzea Laburpena Txosten zientifikoa</p>
<p>Argibideak eta eraikuntza</p> <p>EKINTZA DESKRIBATU</p> <p>Portaeren elkarren arteko arautzea</p>	<p>Muntaia argibideak Errezeta Arautegia Jokoaren arauak Erabilpen modua Agindu desberdinak Iragarpen testuak</p>	

**Proposatutako generoak:**

zikloa	Aukera daitezkeen genero testualen adibideak	Ingurune sozialaren irudikapena	Testuaren egitura diskurtsiboa	Hizkuntza unitateen aukeraketa
1-2	<i>AHOZKOA:</i> -Iritziak eman eta justifikatu -Klaseko eztabaida kolektiboa	-Eguneroko bizitzako egoeren iritzia ematea	-Oinarri minimo batekin ematea iritzia -Ikuspuntuaren arteko aldeak mantentzea	-Jarrera adierazpenak erabiltzea iritzia emateko -Kausaren antolatzaileak erabiltzea iritziak sustengatzeko -“Zergatik” galderak egin
3-4	<i>IDATZIA:</i> -Prensa (haur aldizkariak), irakurlearen gutuna  <i>AHOZKOA:</i> -Klasearen aurrean iritzia defendatzea	-Galdera eta eztabaida sortu duen gaia birplanteatu -Testuaren hartzailea identifikatu eta kontuan hartu -Argudiozko testu baten asmoa zehaztu -Testua irakurriko den lekua eta momentua kontuan hartu	-Argumentu sorta bat zehaztea egoera zehatz batetik abiatuta -Aurreko argumentuekin ondorio koherentea osatu -Argudio desberdinak lotu eta ondorioarekin erlazionatu	-Iritzi baten inguruan hartutako jarreraren adierazpenak irudikatu eta erabili, bai aldekoak bai kontrakoak -Zerrendatu antolatzaileak erabili -Argumentu bakoitzeko antolatzaileak ondorioetatik bereiztu -Interpretazioa eta gutunak ixteko formulak erabili.
5-6	<i>IDATZIA:</i> -Prensa (gazteentzako aldizkariak) irakurle baten gutuna. -Gutunak: autoritate-ari zuzendutako erreklamazio gutuna  <i>AHOZKOA:</i> -Eztabaida publiko erregulatua	-Egoera polemikoa irudikatu orokorrean (rol baten bidez) eta bere parametroak aztertu: *Argudiatzailea eta bere rol soziala *Hartzailea eta bere rol soziala *Helburua:konbentzitzea *Testuaren agerpen lekua -Kontrakoen erantzun posibleak aurrikusi	-Gutun ez-ofizial bati forma eman eta bere egitea zaindu. Ariketa bera egin gutun ofizial batekin -Sarreran eztabaida gaia aurkeztu -Argudioak indartu adibideekin -Kontrako argudioei kontrako iritziak planteatu -Ondorioak eman	-Argudio elementuak erabili argudioak lortzeko eta ondorioak ateratzeko -Iritzi aditzak erabili -Kontrako jarrerak azaltzeko formulak erabili -Adibideak eta esperientzia pertsonalak sartu -Sujetua duen titulua egin
	<i>IDATZIA:</i>	-Testu batean	-Landutako	-Ezeztatzea,

7-8	<p>-Prensa lokala: irakurle baten gutuna, gutun irekia, kritika-artikuluak -Eskaera gutuna</p> <p><b>AHOZKOA:</b> -Argudiozko elkarriketa -Eztabaida informala</p>	<p>defendatutako jarrerak zehaztu eta ezkutuko egoera polemikoa atera -Besteek sinesten dutena ulertu eta horren arabera jokatu -Testu hartzailearen ezaugarriak aztertu berari egokitzeko -Kontrako jarrerari aurre hartu -Bestearen hitzak aipatu -Leku sozialak eta argudiozko generoak bereiztu</p>	<p>argudiozko generoari egokitutako testu plana aukeratu -Defendatuko den tesia zehaztu, argudioak osatu eta gaiak multzokatu -Argudioak, ez-argudioak eta kontra-argudioak beteriztu -Argudio mota desberdinak aurreikusi eta lortu nahi den helburuaren arabera hierarkizatu -Gure tesia defendatzen duten beste hitzak erabili -Testua argudio estrategiaren arabera antolatu</p>	<p>kontraktasuna eta kontzesioa adierazten duten argudio elementuak erabili -Aditz adierazkorrek erabili: neutroak, apreziatzaileak, depreziatzaileak,... -Aipuak sartzeko formulak erabili -Argudio norabidearen arabera zalantza, probabilitatea eta ziurtasuna adierazteko bitarteko desberdinak erabili (adberbioak, aditz laguntzaileak, denbora partikularrak,...) -Adierazpen moduak bereiztu: galdera erretorikoak, galdera motak, harridurazko esaldiak,...</p>
8-9	<p><b>IDATZIA:</b> -Prensa: editoriala -Gutunak: lana eskaerarako gutuna -Publizitatea: publizitate-tartekoa -Saiakera, ideien konposaketa. -Errekurtsoa, legezko errekisa</p>	<p>-Hartzaile anitza kontuan izan -Beste baten hitza norberarena bezala hartu -Argudio egoeraren muga instituzionalak definitu -Argudio generoak egoera argumentatiboaren arabera sailkatu -Genero ez-argudioen ezaugarriak definitu</p>	<p>-Eztabaidaren objektua mugatu -Generoak eta argudio estrategiak aukeratu -Tesi posibleak definitu -Kontrako jarrerak aurreikusi eta ezeztatu -Kontra-argudioak garatu -Rol sozialaren arabeko ikuspuntua hartu eta tonua egokitu -Argudioaren elkarriketa dimentsioa mantendu testuan -Ezkutuko arrazoiak berreraiki</p>	<p>-Loturazko esaldien rol argumentatiboa identifikatu: orduan, horrela, beste aldetik,... -Hartzailea inplikatu izenorde pertsonalak erabiliz: ni, gu, zuek,... -Idazketarako terminoak erabili -Apreziatzeko terminoak erabili, bai ezkorrek eta bai baikorrek -Konnotazioaz betetako hiztegia erabili -Anafora kontzeptualak erabili -Marka modal desberdinak erabili</p>

**Lehen ziklorako xehetasunak:**

<i>Maila</i>	<i>Arau konbentzionalak</i>	<i>Kontestualizazioa</i>	<i>Egitura</i>	<i>Testuratu</i>
<p><b><u>1. Maila</u></b></p> <p>-Ezagunak dituzten ipuinak irakurri.</p> <p>-Ahoz ezagutzen dituzten ipuinak berridatzi: hasieran laguntzaz baliatuz eta bukaeran laguntzarik gabe</p> <p>-Ipuin bat asmatu</p>	<p>-Ikasleari diktatu eta berak idatzitakoa kopiau</p> <p>-Silaben fitxeroa erabiliz hitzak idatzi eta irakurri</p> <p>-Eredurik gabe idatzi</p> <p>-Egilea, izenburua eta pertsonaiak idatzi</p> <p><i>Testuaren klabeak ulertu</i></p> <p>-Irakasleak kontatu eta kasetean entzun ondoren, irakurketa talde txikitik eta ozenki egin</p> <p>-Ipuinaren testu zatiak bakoitzari dagokion binetarekin erlazionatu</p>	<p>-Ipuina kontakizunetatik bereiztu</p>	<p>-Ipuinaren binetak ordenatu eta orden logikoa errespetatuz, bakoitzari dagokion testua idatzi</p> <p>-Irakurritako ipuinaren pasarte nagusiak binetetan azaldu, marrazkiz eta testuz</p> <p>-Esaldi sinpleak erabiliz testuen esanahia integratu</p>	<p>-Ahozko kontaketa aurretik landutako edukiez gain aditz denbora eta pertsona errespetatu</p> <p>-Esaldi sinpleak erabiliz testuen esanahia integratu</p>
<p><b><u>2. Maila</u></b></p> <p>Azken xedea: Ipuinaren egitura errespetatuz asmatutako ipuinak idatzi, bakarka zein taldeka</p>	<p>-Arau ortografikoak errespetatu</p> <p>-Ipuina idazterakoan garbitasuna eta ordena landu eta baloratu</p> <p><i>Testuaren klabeak ulertu</i></p> <p>-Kontestuz baliatuz hitz ezezagunak ulertu</p>	<p>-Narratzailearen rola bereganatu ipuina idazterakoan</p> <p>-Ipuinaren helburua eta aipagaia (egoera ez errealak) kontutan izan ipuina idazteko</p> <p>-Ipuina kontakizunetatik bereiztu</p>	<p>-Ipuinaren egitura errespetatu ipuina idazterakoan</p> <p>-Ipuinen hasierako formulak aztertu, jaso eta erabili ipuinak idazterakoan</p> <p>-Ipuinaren hasierako elementuak identifikatu eta erabili ipuina idazterakoan</p> <p>-Pertsonaien deskripzioetan garrantzitsuenak diren elementuak gogoratu: nolakoa den, non gertatzen den,...</p> <p>-Ipuinaren gertaeren logika errespetatu ipuina idazterakoan</p>	<p>-Ipuinaren hasierako formulak erabili</p> <p>-Deskripzioak egiteko adjetiboak, konparazioak erabili</p> <p>-Gertaerak denboran kokatzeko konektore bariatuak erabili</p> <p>-Aditz denbora eta pertsona zuzen erabili</p>

## **HEZKUNTZA BEREZIKO IKASLEEKIN IRAKURKETA – IDAZKETA LANTZEN**

1998ko ekainaren 23ko Dekretuan jasotako hezkuntza – premia berezien definizioa eta motak hartu behar dira kontutan, bertako 2.artikuluaren ezarritakoaren arabera:

“Dekretu honen eraginetarako, hezkuntza – premia bereziak izango dituzte eskolatzeko-aldi osoan edo epealdi batean hainbat lagungarri eta arreta berezi behar dituzten ikasleek, urritasun fisikoak, psikikoak edo sentimenekoak dituztelako, portaeran desoreka larriak adierazten dituztelako, edo gizarte edo kultura-egoera kaltetua dutelako; hezkuntza – premia bereziak izango dituzte, halaber, adimen-gaitasun handiko ikasleek, horiek ere arreta bereziak behar dituzte eta.”

Gauzak horrela, V. kapituluaren bederatzi hezkuntza – premia bereizten dira eta hezkuntza sistemak erantzun berezia eskaini behar die horiei guztiei. Premia horiek honako hauen ondorio dira:

- Buru-urritasuna edo garapenaren nahaste orokorrak.
- Gorreria edo entzumen-urritasuna.
- Ikusmen-urritasuna.
- Mugimenezko ezgaitasuna eta garun-paralisia.
- Gaitasun handiagoa edo aparteko adimena.
- Gizarte edo kultura-egoera kaltetua.
- Eskola-moldagabezia larriari loturiko egoerak.
- Ospitalizazioa eta gaixotasun luzeak.
- Ikaskuntza-maila motelak eta ikaskuntza-oztopo handiak.

Gaur egun ezin daiteke hezkuntza ulertu, bizi kalitatea eta ongizatea printzipioak bertan sartu gabe. Bizi-kalitatearen kontzeptua, gizabanakoak dituen garapen-aukerekiko erlazioatuta dago; zentzu honetan, hezkuntza, bere baitan, kultur balore garrantzitsua da, eta hezkuntzaren barruan sartzeak bizi-kalitatearen parametroetako bat adierazten du.

Proposatutako trebetasuna: irakurmena eta idazmena.

### **\* *Zenbait trebetasun alternatiboak:***

- Testuinguru funtzionaletan zeinuak, errotuluak eta piktogramak ezagutzea.
- Produktuak eta ontziak ezagutzea.
- Ingurune informatiboa ezagutzea, piktogramen, zeinuen eta etiketen bidez.
- Piktogramak dituzten jarraibideak ulertzea eta interpretatzea.
- Produktuen zerrenda batekin erosketak egitea.

### **\* *Jardueren adibideak:***

- Adierazle desberdinak ezagutzea eta erabiltzea: jangelarako, sarrerarako, irteerarako, bainugelarako, autobusaren geltokirako,...
- Ontziak eta produktuak baztertzea: jatekoak direnak eta jatekoak ez direnak.
- Gelako eta etxeko ontzi desberdinak baztertzea: kaxak, botilak, poteak,...
- Ikastetxeko sarrera eta irteera aurkitzea, jangela, supermerkatua,...
- Bainugela aurkitzea eta gizonena eta emakumeena bereiztea.
- Autobusaren geltokia, tren, metroa, telefono publikoa, ... aurkitzea.
- Musika-kasetaren teklak ezagutzea, martxan jartzeko erabiltzea, bideo-zinta gustokoenak ezagutzea, piszinara joateko zereginen sekuentziak irakurtzea, jartzeko edo arropa kentzeko, ... liburuskak irakurtzea edo interpretatzea, sukaldarako errezetak, telefonoa erabiltzea,...
- Ohiko produktuen etiketak ezagutzea. Erosketa egiteko ontzien etiketak erabiltzea. Etiketa ezagutuz aukeratzea. Produktuen etiketak dituen erosketak egiteko liburua erabiltzea.

Atal hau bukatzeko eta laburbiltzeko ahalegina ginez, funtsezkoa da barneratze hezkuntzaren hiru oinarritzko ezaugarriren garrantzia nabarmentzea:

- Pertsonalizatua: premiak, nahiak, helburuak.
- Orokorra eta integrala: emozionala, praktikoa, kontzeptuala.
- Lankidetzakoa edo ikastetxearen proiektuaren arabera: taldea, baloraturiko rola, testuinguruetara bideratuko hezkuntza.

## HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAN LANDU DAITEZKEEN TESTUAK

### \* Enumeratiboak:

**Balio dute:** informazio konkretua aurkitzeko, datuak gogoratzeko, etiketatzeko, sailkatzeko, ondorioak komunikatzeko, ordenatzeko, artxibatzeko,...

**Testu mota:**

- Zerrendak (erosketa, jostailu, irakurritako liburuena,...)
- Etiketak.
- Gidak (telefonoarena), agendak,...
- Txartelak.
- Aurkibideak: liburu, aldizkariena,...
- Katalogoak (erakusketa),...
- Menuak: jantoki, errestauranteenak,...

**Lantzen diren edukiak:**

- Izenak, izenburuak.
- Zifrak.

- Formatoa:**
- Idazketa zutabetan.
  - Asterisko, gidoi erabilera.
  - Testu espezifiko bezala edo beste testu hedatuagoen barne egon daitezke.

**\* Informatiboak:**

**Balio dute:** azalpen edota informazio orokorrak ezagutu edota emateko, sakonki aztertu gabe.

- Testu mota:**
- Aldizkariak, albisteak, propaganda, liburuxkak,...
  - Oharrak.
  - Gonbidapenak.
  - Gutunak.

**Lantzen diren edukiak:** - Gai edo ereduaren arabera.

**Formatoa:** - Ereduaren arabera. Espezifikoa.

**\* Literarioak:**

**Balio dute:** entretenitu, gozatu eta jostatzeko, fantasiak komunikatzeko, gertaerak indibidualdi edo taldeka bizi izandako emozioak gogoratzeko, baloreak transmititzeko.

- Testu mota:**
- Ipuinak, narrazioak, antzerkia.
  - Olerkiak, abestiak, asmakizunak, atsotitzak,...
  - Komikiak,...

**Lantzen diren edukiak:**

- Hasteko eta bukatzeko ezarritako formak: Behin batean, ... Hala bazan, ...
- Pertsonai, egoera desberdinen deskribapena, ...
- Fantastiko edo bizi izandako gertaeren narrazioa.
- Sentimenduen adierazpena.

**Formatoa:**

- Testu baten konposaketa liburu formarekin, azalarekin.
- Puntuazioaren balorazioa. Narrazio eta elkarrizketaren arteko desberdintasuna.
- Olerkietan: bertsoen antolamendua: errima, neurria, ...
- Ipuinetan: aditzak iragan aldian, 3. pertsona erabiliz.

**\* Espositiboak:**

**Balio dute:** ezagupen berriak ezagutu edota transmititzeko, testuaren gaia identifikatzeko, ideia nagusia aurkitzeko, laburpenak egiteko, ...

Haur Hezkuntzan: hitzak definitzeko, laborazio prozesu bat azaltzeko, biografia bat egiteko, ...

**Testu mota:** - Liburu testuak.

- Gai tematikoak.
- Biografiak.
- Reseinak (irteera bat bere ibilbidearekin, esperimendu bat, prozesu bat,...)

**Lantzen diren edukiak:**

- Definizioak, agerpenak.
- Deskribapenak.
- Prozesu baten azalpena.
- Eskemak, mapak,...
- Argudioak.

**Formatoa:**

- Izenburua, azpimarraren presentzia.
- Lengoia zehatza.
- Aditza. 3. pertsonan.
- Erlazio partikulak: kuantifikatzaileak, tenporalizatzaileak,...

**\* Preskriptiboak:**

**Balio dute:** ekintza bat egiteko jarraitu behar diren pausoei buruzko informazioa emateko, azaltzeko nola egiten diren eginkizun desberdinak: eskulan bat, errezeta bat, tresna baten erabilera,...

**Testu mota:**

- Eskol instrukzioak.
- Errezetak.
- Arautegia: jolas-arauak, portaera-arauak,...
- Eskulan bat egiteko prozedura.

**Lantzen diren edukiak:**

- Eginkizun bat egiteko jarraitu behar diren pausoen azalpen zehatza.
- Gaia hornitzen duten ilustrazio edota grafikoen presentzia.

**Formatoa:**

- Testua, prosan idatzia, beste testutik bereiztuta.
- Ordenatzeko, numeratzeko formen erabilera.
- Esaldi motz eta zehatzak.
- Lexiko espezifikoak.
- Aditza inpersonala.
- Tenporalizatzaileak, ekintzen sekuentziazioa adierazteko.

**\* Laukia**

HIZKUNTZA LITERATURAN	HIZKUNTZA GIZARTEKO KOMUNIKA-	HIZKUNTZA PERTSONA AR- TEKO HARRE-	IKASKETAKO HIZKUNTZA
--------------------------	-------------------------------------	--	-------------------------

		BIDEETAN	MANETAN	
DESKRIBAPEN TESTUA	-Beste testuan txertaturiko zatiak.	-Grafikoak. -Mapak. -Argazki oinak. -Iragarki laburrak. -Aldizkari espezializatuak. -Turismo gidak.	-Elkarrizketazko azalpena.	-Eskemak. -Koadro sinoptikoak. -Grafikoak.
NARRAZIO TESTUA	-Ipuinak. -Biografiak. -Autobiografiak -Eleberria. -Erromantzeak. -Leiendak. -Alegi-fabulak. -Baladak.	-Berriak. -Erreportaiak. -Iragarkiak. -Komikiak. -Telefilme sailak. -Filmeak.	-Elkarrizketa. -Elkarrizketazko azalpena. -Karta. -Egutegia. -Posta txartela.	-Parabolak. -Fabulak. -Problemak.
ARGUDIO TESTUA		-Zuzendariari egindako kartak -Eztabaida. -Iragarkiak.	-Biltzarra. -Eztabaida. -Diskusioa.	-Txostena. -Iruzkina. -Kritika. -Errefraua. -Zientzi artikulua -Azterketa -erantzuna.
AZALPEN TESTUA	-Bestelako testu zatiak.	-Agenda (orotariko informazioa) -Dokumentalak.	-Izen emateak. -Eskabideak.	-Hiztegia. -Monografia. -Testu liburua. -Zabalkunde liburua. -Katalogoa. -Entziklopedia. -Maisu azalpena -Azterketa-erantzuna.
ISTRUKZIO TESTUA	-Fabula. -Ondorio-moraleja. -Parabola. -Bestelako testu zatiak.	-Publizitate (zatiak).	-Abisuak. -Oharrak.	-Azalpen eta erabilpen txostenak. -Sukaldeko errezeta. -Azterketa -galdera. -Eskola ariketak. -Joku azalpenak.
OLERKI TESTUA	-Poesi prosa. -Poemak. -Kantak. -Koplak. -Bertsoak. -Teatroa.	-Literatur lanen egokitzapena. -Testu mota desberdinetako literatur baliabideak.		

## **Sarrerakoa:**

Irakur idazketaren oinarriak Haur Hezkuntzan ematen dira, baina beren hasiera eta garapena Lehen Hezkuntzari dagokio.

- *Lehen Hezkuntzara iristerakoan neska-mutilek orokorrean:*
  - Nolabaiteko gaitasuna dute aho hizkuntzan.
  - Idazmena dena eta ez dena bereizten dute.
  - Idazmenean konbentzioak daudela badakite.
  - Ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatzia desberdinak direla ikusten dute.
  - Oinarrizko metalengoaia erabiltzeko gai dira.
  
- *Lehen Hezkuntza hasterakoan landu behar dena:*
  - Testu idatzien ulermena eta produkzioa.
  - Idazmenaren izaera alfabetikoaren ulermena.
  - Fonema-grafia korrespondentzien erabilpena, konbentzio ortografikoak.
  - Zein lengoaia mota idatzi behar den jakitea.

### **\* Kontzeptuak:**

- Ahozko eta idatzizko kodearen arteko harremana:
  - fonema-grafia arteko korrespondentziak. Ortografia
  - entonazioa eta geldiuneak. Puntuazioa
  - idazketaren beste elementuak: idazketaren norabidea, linealitatea, hitzen banaketa, margenak, ilustrazioa,...
- Testu motak:
  - elkarriketaren transkripzio-arauak (gidoiak, harridura-galdera ikurrak)
  - testu narraitiboaren oinarrizko eskema: sarrera, gertaerak, bukaera
  - deskribapena

### **\* Prozedurak:**

- Automatizazioa:
  - Idazketaren oinarrizko arauak bete:
    - fonema-grafien korrespondentzia
    - hitzen banaketa
    - esaldi haseran eta izen berezietan maiuskulen erabilera
    - puntuazio zeinuen erabilera (galdera – harridura ikurrak)
    - grafia egokia
  - Irakurketaren oinarrizko arauak bete:
    - ulermen mailako estrategiak: hipotesi eta predikzioak egitea, testuaren ideia nagusiak bereiztea,...
    - irakurketa azkarrerako teknikak: begi-eremuaren zabalketa, hitzen memorizazioa, atentzioa,...

- puntuazio zeinuen erabilkera zuzena, irakurketa ozenari zentzu egokia eta espresibitatea emateko.

- Erreflexioa:
  - Ortografi arauak bilatu: maiuskulak eta puntuazioa.
- Testuak eraiki:
  - idazketako helburuari testu mot egokitu (narrazioa-instrukzioa-esplikazioa)
  - narrazioaren oinarritzko eraiketa erabili (sarrera-gertaerak-bukaera)
  - ideien aurkezpenetan ordena mantendu: ordenaketa kronologikoa (narrazio-instrukzioak), espaziala (deskribapena)
  - testuaren oinarritzko kohesioa ziurtatu: puntuaketa, lotura elementu oinarritzkoak
  - testuaren berrikusketa egin irakaslearen edo lagunen laguntzaz

\* Jarrerak:

- idazlanetan txukuntasuna eta itxura egokirako ardura.
- idatziaren zuzentasunerako ardura. Zuzentasunak komunikazioak laguntzen duela baloratzea.

**Deskripzioa:**

“Prolec, irakurtzeko prozesuen ebaluazioa” programa hartu izan dut oinarri gisa. Bertan, puntu ugari azaltzen dira, 10 hain zuzen ere, baina ikertzaileak 8. Atala “Puntuazio zeinuak” eta 10.a “Testu ulermena”, ez ditu landu.

**Probak:**

- Letren bereizketa: letren orria aurrean duelarik, ikasleari egin beharrekoa azaldu zaio hasierako adibideez baliatuz. Erantzun egokitzen hartu dira letraren izena zein bere hotsa (adibidez “f” letraren aurrean, bere izena “efe”, zein bere hotsa “fff”). Ikasleari zera esaten zaio: “Orri honetan letra batzuk dituzu idatzita. Zuk haien izena edo hotsa esan behar duzu. Ea nola irakurtzen duzun lehenengoa (“e” hizkia seinalatzen zaio). Zuzen erantzuten badu zera esaten zaio: “Oso ondo, ea orain hurrengoa” (“o” letra seinalatuz). Gaizki esaten badu zera galdetzen zaio. “Ziur zaude”, “begiratu ondo” eta bigarren aukera bat ematen zaio zuzen erantzun arte eta beharrezkoa bada laguntzen zaio. “Tx” letrarekin era berean egiten da eta adibideekin amaitu ondoren. “Ondo da, orain jarraitu besteekin”.
- Berdin – desberdin: Proba honek arreta handiagoa eskatzen du, horregatik haurrari ondo begiratzeko esaten zaio, zein estimulu diren guztiz berdinak

eta zein desberdinak, horrela emaitzek benetan segmentazio ahalmena adieraziko dute, arreta-proba hutsa izan gabe.

Haurrari, hau esaten zaio: “Hemen hitz pareak dituzu, batzuk benetakoak dira, beste batzuk berriz asmatutakoak. Ondo begiratu behar dituzu eta gero zeintzuk diren berdin-berdinak eta zeintzuk desberdinak esan behar duzu. Irakur itzazu lehenengo biak (“teilatutela”). Begiratu ondo, berdinak al dira? Ea, orain hurrengo biak (“tesepa-tezepa”). Orain jarraitu besteekin!!

- Erabaki lexikoa: haurrari: “hemen hitz zerrenda bat duzu. Hauetako hitz batzuk benetakoak dira, beste batzuk asmatutakoak. Señala ezazu hitz bakoitza hatzamarraz eta esan benetako hitza den ala ez”, esaten zaio.

- Hitzen irakurketa: proba honetan ikasleari ematen zaion argibide bakarra zera da: “Irakur itzazu ozenki hurrengo hitzak”.

- Sasihitzen irakurketa: proba honetan sasihitzak ozenki irakurtzeko eskatuko zaio ikasleari: “Hurrengo hauek asmatutako hitzak dira. Irakur itzazu ahots gora”.

- Hitz eta sasihitzen irakurketa: aurreko bietan bezala, haurrari ozenki irakurtzeko eskatuko zaio. “Zerrenda honetan benetako eta asmatutako hitzak daude. Ahots gora irakurri behar dituzu”.

- Gramatika egiturak: “Ariketa honetan marrazki batzuk erakutsiko dizkizut. Marrazki bakoitzaren azpian hiru esaldi dituzu. Marrazkiaren esanahia esaldi bakar batek adierazten du. Beste biak faltsuak dira. Esaldi egokia aukeratu behar duzu”. “Ikus dezagun untxi eta katuaren marrazkia”. “Irakur itzazu hiru esaldiak”. Haurrak ozenki irakurri ondoren, zera esango zaio: “Hiru esaldietatik zeinek adierazten du marrazkian dagoena? Zuzen erantzuten badu, aurrera jarraitzeko animatuko dugu. Gaizki eginez gero, erantzun zuzena zein den eta zergatik azalduko zaio.

- Puntuazio zeinuak: “Ipuin polit bat emango dizut ozenki irakur dezazun. Argiro eta doinu egokiz irakur ezazu, gelako kideen aurrean kontatzen egongo bazina bezala”.

- Esaldien ulermena: “Esaldi eta marrazki batzuk erakutsiko dizkizut. Esaldiak irakurri eta eskatzen dizutena egin behar duzu zehatz-mehatz”. Laugarren ariketara heltzean, emaitzen erregistro-orria emango zaio haurrari, azkeneko orrialdean eskatzen zaiona egin dezan. Hamargarren esaldia heltzean zera esango zaio: “Orain esaldi bat eta hiru marrazki ikusiko dituzu. Marrazki horietatik bat bakarrik dator bat esaldiak esaten duenarekin. Esaldia ongi irakurri, marrazkiak ongi begiratu eta esaldiarekin bat datorrena señalatu ezazu”.

“Egin ezazu zehatz-mehatz esaldi hauek eskatzen dizutena”. (Ondoren lehenengo hiru esaldiak doaz.)

Haurrari emaitzen erregistro-orria eman ondorengo ariketak egin ditzan. (Ondoren laugarren ariketatik bederatzigarrenera doaz.)

Bederatzigarren ariketa bukatutakoan, zera esaten zaio haurrari: “Orain esaldi bat eta hiru marrazki ikusiko dituzu. Marrazki horietatik bat bakarrik dator bat esaldiak esaten duenarekin. Esaldia ongi irakurri, marrazkiak ongi begiratu eta esaldiarekin bat datorrena seinala ezazu”.

### **Bitartekoak:**

PROLEC, irakurtzeko prozesuen ebaluazioa.

- Eskuliburu teknikoa.
- Elementuen liburuxka.
- Erregistro orriak.

### **Nortzuekin gauzatu da:**

Irakurketaren prozesu kognitiboen oinarriak lehen hezkuntzako lehen zikloan ezartzen direnez, 1go eta 2. mailetako zenbait ikaslerekin gauzatzen ari da. Aplikazioa indibiduala edo bakarkakoa delarik eta laginak ikertuz.

### **Non betearazi eta zein epetan:**

*Non:* zenbait kasutan gela arruntean, barruan, besteetan aldiz, gela arruntetik at, beti ere ordua, argia, zaratak eta ingurua kontutan hartuz.

*Epea:* **1go fasea:** urritik abendura bitartean. Bakarkako saioak 45 minutu/ ordubete inguru, azalpenak kontutan izanik. Zuzenketak egiten beste ordu bete bat.

**2. fasea:** urtarriletik martxora bitartean. Irakuketa – idazketa prozesuan arazoak dituzten ikasleen detekzioa, bai bide lexikoan nahiz bide fonologikoan; era paraleloan berrezitze materialak euskaraz elaboratu edo sortu, beti ere gatzelaniazko fitxak moldatzen, CEPE antzekoak.

**3. fasea:** apiriletik ekaina bitartean. Ikasleen berrebaluaketa. Materiala bermoldatu eta euskaraz dagoen urritasuna kontutan hartuz, gehiago sortzea, bilduma egiteko asmoz. Azalpen memoria elaboratu.

### **Nola bete den:**

Orohar, goizeko saioetan, ikaslea banaka hartuz, bere ondoan eseri, materiala aurkeztu eta elkarrizketatu: probak azaldu, giroa lasaitu, adibideak eman,... eta ariketak egiten ari garen heinean, emaitzak erregistro orrian apuntatzen joanez.

Bukaeran, haurrari eskerrak eman egin duen lanagatik.

Arratsaldeetan, bibliografia aztertu eta materiala sortu, berritu, itzuli, ordenagailuan erregistratu,...

### **Partehartzaileak:**

Gehienetan, ikertzaileak ikasleak banaka hartuz. Beste kasu zehatz batzutan, tutoreak edo ikastetxeko PTak edo aholkulariak ere parte hartu dute.

### **Lortu nahi izan diren helburuak:**

- Komunikazio idatziaren trebetasuna lortu, irakurketa-idazketa teknikez jabetuz, eta gaurko bizitzarako eta bereziki eskolako ihardueretarako oinarrizko tresna garrantzitsu bezala baloratu.
- Irakurtzeko ohitura eta interesa sortu helburu desberdinetarako erabiliz: ikasketa bide eta jakintza iturri bezala, solas estetiko atsegingarri bezala, hizkuntzaren hobekuntza nahiz aberastasun iturri bezala.
- Irakurtzeko gaitasuna garatu, irakurtzeko abiadura, entonazioa, erritmoa eta ulertzeko ahalmenak lortuz.
- Aho-idatzizko hizkuntza zuzentasunez erabili oinarrizko formak errespetatuz (esakera, gramatika, egitura, fonologia, hiztegia, etab.)
- Ahozko zein idatzizko testu mota arruntenez (solasaldia, elkarrizketa, debatea, esposizioa, argumentazioa, kontaketa,...) eta hauen egituren ezaugarri nagusienez ohartu, enuntziatio egoera ezberdinen arabera.
- Ahozko zein idatzizko hizkuntzaren funtzionamenduaz eta honi buruzko lege batzuen ezagupena bideratzen duten estrategiez jabetzen joan, testu mota ezberdinen erabileraren bidez, beharrezko hizkuntza baliabideak eskuratu edota garatu, betiere komunikazio egokiagoa lortzeko.

### **Emaitzak:**

Nahiz eta PROLEC materiala lehen hezkuntzako 1go mailatik 4. maila arteko ikasleei zuzenduta egon, praktikagarritasunagatik eta irakurketa-idazketa prozesua lehen hezkuntzako 1go eta 2. mailetan lantzen dela gehienbat jakinik, maila hauetan garatu izan da.

Urola Bailarako ikastetxe publikoak izan dira aztergai, denek D ereduak daukatelarik.

Helburua ez da izan PROLEC balidatzea eta honen fidagarritasuna ziurtatzea, hau, bai estatu mailan, bai erkidego mailan egina baitago.

Helburua ez da ere PROLEC balidatzea Urola mailan, bailerako eskola publikoetako maila edo lorpena 1go eta 2. mailetan ikustea eta azaltzea. Emaitzak konparatuz, antzekoak dira.

Hona hemen laburbilduz, taula esanguratsuenak:

Lagina N = 16 (Guztien ama hizkuntza euskara da)

	N	$\bar{X}$	DT
1.- Letren bereizketa	16	16'8	1'62
2.- Berdin - desberdin	16	18'95	1'16
3.- Erabaki lexikoa	16	28'02	2'21
4.- Hitzen irakurketa	16	25'34	4'65
5.- Sasihitzen irakurketa	16	24'3	5'17
6.- Hitz eta sasihitzen irakurketa			
- Sarriak	16	17'32	2'91
- Urriak	16	15'21	3'13
- Sasihitzak	16	14'61	3'82
- Guztira	16	47'14	9'02
7.- Gramatika egiturak	16	10'05	2'08
8.- Puntuazio zeinuak	16	6'92	3'01
9.- Esaldien ulermena	16	7'95	2'82

Lagina N = 16 (Guztien ama hizkuntza euskara da)

	N	$\bar{X}$	DT
1.- Letren bereizketa	16	17'8	1'3
2.- Berdin - desberdin	16	19'4	1'05
3.- Erabaki lexikoa	16	29'5	1'91
4.- Hitzen irakurketa	16	27'6	4'2
5.- Sasihitzen irakurketa	16	28'12	4'92
6.- Hitz eta sasihitzen irakurketa			
- Sarriak	16	19'05	3'01
- Urriak	16	17'43	2'95
- Sasihitzak	16	17'21	3'22
- Guztira	16	54'31	10'13
7.- Gramatika egiturak	16	12'28	1'81
8.- Puntuazio zeinuak	16	7'75	2'91
9.- Esaldien ulermena	16	8'67	2'42

- Irakaskuntza – ikaskuntza prozesua haurraren zentratzen badugu, irakaskuntza – ikaskuntza prozesuko beste elementu guztiak haurraren egokitzapenarenpean geratuko dira. Horrela, maila batean, irakurketa eta idazketako baliabide eta euskarriak ikaslearen kontsiderazioaren menpe geratuko dira, hau da, irakaskuntza – ikaskuntza prozesua haurraren zentratu behar da.

- Irakasleok, badakigu eta onartu behar dugu ikaslea eskolara etortzean ezagutza batekin datorrela, eta oinarri hori kontuan izanik hasi behar dugu lanean. Beraz, hurrek dakitena hartu behar da aintzat eta dakiten hori ez da ezertan oztopo izan behar, alderantziz, eskolak egoera horretan beste mota bateko lanketa gauzatu beharko du. Alegia, haur bakoitza datorren bezala dator eta hori da daukaguna. Beraz, hortik abiatuz egin behar da lan.

- Irakurtzen eta idazten jakitea oso garrantzitsua da, baina ez da ahaztu behar idatzi eta irakurtzeko ekintzek zer zentzu duten jakitea.

- Sarritan justifikatu izan da irakurketa – idazketaren irakaskuntzaren atzerapena psikologiako teoria tradizionalan oinarrituz; bestalde, gaitasun maila osoa behar al da idazketaren, irakurketaren nahiz hitz egitearen ikasketa prozesua hasteko? Eta gainera, jakin ote liteke pertsona batek irakurketa – idazketa prozesua eskuratzen hasteko nahiko gaitasun noiz izan dezakeen jakitea?

- Baliabideei buruz ere aipamena egin behar da. Ez dago irakasleriak betetzen duen ezinbesteko funtzioa ordezkatzeko duen elementu didaktikorik baina gaur egun, ordenagailua, material didaktiko baliagarria gertatzen ari zaigu ikasleak ikasteko eta irakasleak irakasteko erabiltzen dena. Lana errazten duen bitarteko bat da eta irakurketa – idazketa prozesuan guztiz erabilgarria, praktikoa eta haurrentzat erakargarria den tresna.

Hor dugu baita interneta. Hurrek irakurri egin behar dute eta hauen eskuetan ahal ditugun baliabide gehienak jarri behar dira.

- Irakurketa eta idazketa konstruktibistak, ikaskuntza prozesua etengabe eraikitzen dagoen prozesu bezala ulertzen du; hau da, ez dela kanpo ideien bidez ezarria, ezta bat-bateko garapen eta garapen autonomoaren bidez ere, elkarrekintza testuinguru batean baizik.

- Idatzizko hizkuntza lantzen denean ahozkoa ere lantzen da, eta alderantziz ere bai. Landutako irakurketa bat jorratzen denean, idatzita dagoen testu bat ahoz komentatzen da. Edota azalpen batzuk ematean, azalpen horiek ere idatzita dagoen prozesu batean ahozko azalpenak dira. Orokorrean, testu idatzi baten ahozko erreproduzioa egiten ari gara.

- Kontutan hartu behar da idatzizko hizkuntzak iraun egiten duela, zuzenketak egitea ahalbidetzen du eta idatzitako horretara itzul gaitzkeela. Beraz, landuta plazaratzen den zerbait da. Ahozkoarekin, berriz, ez da hori gertatzen; esaten dena momentu horretan geratzen da. Horregatik, produkzio moduak guztiz desberdinak dira batean zein bestean.

## **BIBLIOGRAFIA**

- \* Dolz, J. eta Schneuwly, B.: *Géneros y progresión en expresión oral y escrita*. Elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suiza francófona. Textos aldizkaria, 11. Zenbakia, 1997ko urtarrila.
- \* E.A.E.ko Hezkuntza – premia bereziei emandako erantzuna. (2001)Ararteko. Vitoria – Gasteiz.
- \* Elena Huerta eta Antonio Matamala. (1984) *Programa de reeducación para dificultades en la escritura*. Aprendizaje Visor. Madrid.
- \* Elkar – GIE (1993): Lehen zikloko gidaliburua. Axelko.
- \* Euskara. Idazketa koaderno. Ibaizabal.
- \* Feli Arbizu eta al. (1984): *Irakurketa Jeannot metodoa*. Bilbo. GIE-BIE.
- \* Fernando Cuetos et al. (1996): *PROLEC. Batería de evaluación de los procesos lectores de los niños de Educación Primaria*. Madrid. TEA Ediciones.
- \* Fonemak. Ibaizabal.
- \* García Nieto N. et al. *Reforzamiento y recuperación de los aprendizajes básicos*. Madrid. I.C.C.E. Publicaciones.
- \* Hik hasi (1996): Euskal heziketarako aldizkaria. Xangorin. Lasarte-Oria.
- \* Jaime M. Jimenez. (1988): *Confusión de letras por proximidad espacial*. Alicante. Editorial Disgrafos.
- \* Jaime M. Jimenez. (1988): *Confusión por proximidad espacial: sílabas directas e inversas*. Alicante. Editorial Disgrafos.
- \* Juan A. García Nuñez. (1983): *Habilidades grafomotoras y preescritura*. Madrid. Citap.
- \* Logopedia interactiva. (1997): Crisher. Bilbo.
- \* Neus Roca, Rosa Simón (1995): *Escritura y necesidades educativas especiales*. Madrid. Fundación Infancia y Aprendizaje.